

# IKAPP

## **Zein da zure bezeroa?**

Gure aplikaziorako bezero egokiena bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleak dira. Zereginak antolatzeko, azterketak planifikatzeko eta proiektu akademikoetan laguntzeko tresna edo aplikazio bat bilatzen dutenak. Ikasle horiek, erabiltzeko erraza den aplikazio batean beraien arazoentzako irtenbide bat aurkitu nahi dute. Beren produktibitatea eta antolaketa hobetuko dituen esparru akademiko batean lan egitea helburu duten bezeroak izango dira. Aplikazioa hezkuntza-arlo eta hezkuntza-maila desberdinetako ikasleei egokitzeko diseinatuta dago, eta erabiltzaile bakoitzaren behar espezifikoetara egokitzen diren ezaugarriak ematen ditu.

IKAPP, hezkuntzaren eta produktibitatearen merkatuan kokatzen da, bigarren hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleentzat segmentatuz. Gainera, hainbat ikasketa-eremutara eta hezkuntza-mailatara egokitzen da, eta talde bakoitzerako funtzio espezifikoak eskaintzen ditu.

## **Zein dira bezero horien ezaugarriak?**

- Ikasterako orduan arazoak dituzten ikasleak
- Denbora kudeaketa eskasa dutenak
- Ikasteko metodo pertsonalizaturik ez dituztenak
- Ikastea gustuko ez dutenak